

BatzArt: Asanblada KreAktiboa

Alex Carrascosa

GERNIKA GOGORATUZ-EKO ARTIBISTA KOLABORATZAILEA

Laburpena

Testuak hiru atal nagusi ditu: 1) kokapen teorikoa; 2) lanabesaren aurkezpena; eta 3) kasu praktikoa. Lehengoak BatzArt edo Asanblada KreAktiboa dagokion ezagutza-esparruan kokatzen du, 'bakearen aldeko artean', hain zuzen, eta horrekin lotuta, 'testuinguruko artean', 'arte erlazionalean' eta 'artibismoan' (artearen bidezko ekintza sozial eta politikoa). Bigarrenak "BatzArt" erreminta aurkezten du 'Dia-Tekhnē · Artea Arteko eta Mintzabide' metodologiaren barruan (Carrascosa, 2010). Eta hirugarrenak, Busturialdea-Urdaibai eskualdean aurten egin den BatzArt baten kasu praktikoa deskribatzen du. BatzArt-aren bidez, herritargoari lagundu nahi zaio eskuratzen errealitatearen ezagutza gardena eta errealitate hori eraldatzeko ahalmena. BatzArt-arez, *aurrea hartzen duen ikaskuntza* mota artibista bat da, komunitateengan *kreAktiboki* —ekinean sortuz— zein *æfektiboki* —afektuekin efektuak hobeak baitira—, 'kontzientzia' eta 'agentzia' sustatzen dituena.

Gako-Hitzak

Artea, testuingurua, harremana, batzarra, *sentipentsaekintza*, *æfektibotasuna*, *kreAktibitatea*.

Sarrera: artibismoa *Aurea Hartzen Duen Ikaskuntzarako Lanabes Gisa*¹

Egun, eredu desarrollistaren inflexio-puntu kritikoa, duela ia 50 urte *Limits to Growth* txostenak aurreikusi zuen legez, bi alternatiba gailentzen dira: “immobilismo baikorra”, konponbide oro panazea teknologiko baten esku uzten duena; eta “pesimismo aktibista”, norbere burua salbatzea baino irtenbide hoberik ikusten ez duena. Kinka honetan, ikerketa-ekintza parte-hartzailearen ereduak —Levinen T-Group-ak, edo, are zabalago, Freireren Kultura Zirkuluak eta Situazionisten edo *New York Radical Women* moduko mugimenduen kontzientzia-ekimenak— gaurkotasan osoa du eta egungo testuinguru berrietara egokitu eta aplikatu beharra dago.

Komunikazio honen bidez, artea balioetsi nahi dugu Aurea Hartzen duen Ikaskuntzarako erreminta egokizat. Izan ere, artea John Dewey pedagogoen ‘3 hatxeez’ baliatzen da —*Head, Heart, Hands* (“burua, bihotza, eskuak”)— eta testu honetan aurkezten dugun lanabesari esker, BatzArt edo Asanblada KreAktiboa, alegia, hiru ‘H’ horiek zabaldu egiten dira entzumenetik sendakuntzara, *Hearing, Head, Heart, Hands, Health* izeneko sekuentzia batean, komunitateei laguntzen baitzaie antolatzen bizitzaren, zaintzaren, jasangarritasunaren eta pertsona guztien eta ekosistemen eskubideen alde lan egin dezaten.

1. Kokapen Teorikoa: Artea eta Bakea

1.1. Bakearen aldeko Artearen oinarriak eta Artibismoaren Insurgentzia

Artearen definizioa, hain da zabala, non mugagabea baita. Material, hizkuntza, adierazpen eta harremanen bidez esanahi, kontakizun, irudikapen, gailu, espazio sinboliko eta subjektibotasun berriak sortzen dituzten jarduera edo ekintza sortaile guztiak biltzen ditu arteak.²

Arteak, beraz, forma edo adierazpen zehatzagoa hartzen du motibo batekin elkartuta. Motibo hori bakea bada, artearen eginkizuna bakearen inguruko esanahi, kontakizun, irudikapen, gailu, espazio sinboliko eta subjektibotasun berriak sortzea izango da.

Modernitatean zehar, bakerako artea, hain zuzen, gerraren aurkako artea izan zen, eta, zentzu horretan, hiru diskurtso errepresentazional nagusi bereganatu zituen: gerraren erantzuleen aurkako satira; gerraren ondorioen salaketa; eta, hirugarrenik, gerraren kausen azterketa didaktikoa, lehenengo biak nahastuz.

“Gutiziak”, “Hondamendiak” eta didaktikak (publiko guztientzat ez direnak) Callotekin sortu ziren (XVII. mendea), Goyarekin garatu ziren (XIX. mendea) eta XX. mende erdira arteko gerrazikloak zedarritu zituzten. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, behin ordena globala goitik berrezarrita, ‘beheko munduak’, kolektiboek, gizarteek, herri osoek osatuak, amorrua adierazi

① Komunikazio hau 2020ko ekainaren 10ean *Hordago-El Salto* aldizkarian “Kontzientzia eta agentzia behar dituen gizarte organismo berria” artikulua osagarria da: <<https://www.elsaltodiario.com/filosofia/kontzientzia-eta-agentzia-behar-dituen-gizarte-organismo-berria>>.

② Ricardo Antón eta Roberto Gómez de la Iglesia, *Kultursistema. Kultura eta sormen ekosistemak mapeatu, aztertu eta interpretatzeko plataforma*, 15 orr.

zuen. Burujabetze- eta deskolonizazio-borrokek ere gainditu zituzten artearen euskarri eta diziplina tradizionalak, eta bizitzara eramateaz gain, gizarte-eraldaketako prozesuekin ere nahastu zituzten.³ Horiek artibismoaren sorrera edo, sorrera baino, ‘insurjentzia’ ekarri zuten, hots, baliabide artistiko, kultural edo sortzaileen bidezko ekintza sozial edo politikoa.

60 eta 70eko hamarkadetan artibismoak hiru estrategia nagusi zabaldu zituen gerraren aurkako triada modernistaren eguneratze gisa. Arduradunen aurkako satira *détournement* edo ‘arrozte semantiko’ bilakatu zen, ‘kultur-interferentzia’ edo *culture jamming* bezala antzeztuta. Bestetik, ondorioen salaketa protesta eta ekintza zuzeneko hainbat ekimenetara eraman zen; eta kausen eta kausatzaileen analisia, berriz, ikerketa-ekintza parte-hartzailearekin lotutako jardunbideetara, kasurako, ‘mediaktibismoa’.

Aldi berean, hiru abordatzeetako bakoitzak aukera taktiko desberdinak zabaldu zituen. Disrupzio-estrategiak komunikazio-gerrilletan, *flash-mob*etan edo antzerki ikusezinetan zehaztu ziren. Protesta-estrategien erakusgarri izango ziren zaintza artistikoak, blokeo edo setioak, kontzentrazio eta okupazioak, edo indarkeria-ezazko ekintza presentzial, digital edo administratibo guztiak. Eta, azkenik, kontzientziazio-estrategiak ‘antzerki-foruma’, ‘antzerki legegilea’ edo ‘ikerketa militantea’ bezalako tailer-formatuetan gauzatu eta horien ondoriozko dibulgazio-ekintzetara hedatu ziren, adibidez, enkartelada edo panfleteoetara.

Aurreko kasu guztietan, bake negatibozko ekimenak (edo gerra ukatzearen bidez bakea aldarrikatzen dutenak) dira nagusi. Hala ere, *lifelike art*-en ildotik,⁴ bake positibozko ekintzak hurrenez hurren suertatzen dira, esanahi berriak eta ekoizpen subjektiboak sortzetik, espazio sinbolikoak birsortuz, ekintza performatiboak burutuz, bizitza bera ‘artifikatzeraino’.

Izan ere, situazionistek, eguneroko bizitzaren eremu guztiak eraldatzeko asmoz, “plastikotzat” jotzen zituzten haien ingurunea eta beren burua. Joseph Beuys artistak ere, bere burua “obra plastikotzat” jotzen zuen, hau da, filosofatzen, hitz egiten eta salatzen zuen organismo eta zelula-eraketa moduan, eta, hortik ondorioztatzen zuen iraultza sozial oro “(ber)eboluzio” bat izan daitekeela, gizartea emeki bere buruari forma eman ahala.

Hundertwasser artistak, era berean, bere burua eta ingurua birsortzeari ekin zion “bost azalak” zirela medio: epidermis edo kontzientzia hartze biluza; berorrek diseinatutako arropa eta etxea; horietatik, komunitate eta herrialdearentzako habitatak zein elkarbizitza-sareak; eta, guztia bilduz, planetarekiko ardura ekologikoa.

Situazionistak, Beuys eta Hundertwasser bizitzako maila guztietan artea —baita ‘arte-bakea’ ere— gauzatzeko eredu indibidualak dira. Alabaina, “etorkizuneko gizarte-ordenaren artelan osoa” —Beuysen esanetan— aktibisten eta artisten multzoak, borondate aske bakoitzetik, egunez egun erabakitzen du. Haien artean, sortzaile batzuek esanahi berriak ematen dizkiote espazio sozialari. Hori da William Kellyren kasua, bake eraikuntzarako gida diren haren antologia muralei edo munduan zeharreko artista-bakegileekin bilbatzen dituen sareei esker.

Artista-bakegile horietakoa da Raymond Watson, Belfasteko auzoak gazteek elkarrekin diseinatutako karga ideologikorik gabeko banderekin lotzen dituenena. Asmo berarekin,

³ Ik. Itsasoratze Artibista, <https://www.gernikagogoratuz.org/wp-content/uploads/2020/06/Embarcada_Itsasoratze-artibista.pdf> pp. 18-27.

⁴ “Bizitza-bezalako-arte” edo “arte=bizitza”, Happening-en sortzaile Allan Kaprowek dioenez.

Hiroshimako Green Legacy eta *Nagasakiko Kaki Tree Project* ekimenek *Hibakujumokuak* edo bonba atomikoetatik bizirik atera ziren zuhaitzen haziak hedatzen dituzte. Edo Casagrande txiletar kolektiboak “olerkien bonbardaketak” antolatzen ditu *raid*-en biktimak izan ziren lekuen gainean.

Beste sortzaile batzuek erakusketa-espazioa erritualizatzen dute, esaterako, Anita Glesta, Irailaren 11ri buruzko *Hell Castings from Heaven* obrarako Gernikako erasoko lekukoak testigantzak biltzen dituena. Shane Cullenek, *The Agreement* instalazioaren bidez ere egiten duena, Ostiral Santuko Hitzarmenaren 11.500 hitzak jasotzen dituzten 55 panelekin, 67 metroko luzera duen zirkuitu bat osatutakoan. Eta, amaitzeko, badira edozein plazatan hausnarketarako guneak ahalbideratzen dituztenak, bai Artearen eta Giza Eskubideen ARTifariti topaketak Tindufeko (Aljeria) errefuxiatu sahararren eremuetan, bai Kolonbiako, Guatemalako, Boliviako edo Euskal Herriko hainbat udalerritan egindako ‘asanblada kreaktiboak’.

1.2. Bakearen aldeko Artearen gako kontzeptualak

‘Indarkeria-ezazko arte’ gisa, lan artistiko edo sortzaile denek plano hauetako bati, batzuei edo guztiei heldu behar die: subertsioa, salaketa edo analisisia. Hirurek ezaugarri komun bat dute: argiratzea. Indarkeriaren aurrean, subertsioak biktimarioen kontraesanak agerian ipintzen ditu; salaketak, aldiz, bere ondorioak azaleratzen ditu; eta analisiak, azkenik, indarkeriari eusten dion egitura instituzional eta mediatikoa eta, beherago, horien oinarri kulturalak argitara ematen ditu.

‘Bake positiborako arteari’ dagokionean, bakea autogenoa denez, hau da, berez sortzen, existitzen eta garatzen denez, gerraren kontrastearen inongo beharrik gabe, dinamika artistiko edo sortzaile orok ongizate indibidual, interpersonal eta kolektiboa eragingo dituzten subjektibotasunak, iruditeriak, espazioak edo erakundeak sortu behar ditu.

Nolanahi ere, ‘indarkeria-ezaren’ edo ‘bake positiboaren’ ikuspegitik, bi abordatze horiek ‘testuinguruko artearen’ edo ‘arte erlazionalaren’ eremuan kokatzen dira, edo bestela esanda, ‘artibismoaren (in)diziplinan’.

Ikuspuntuaren arabera, testuinguruko arteak arte erlazionala hartzen du barne, edo alderantziz. Testuinguruko artea tokian tokiko inguruabarrekin bat datorren arte-sorkuntza da, Ardenneren arabera, ‘kontestua’ *contextere* hitzetik baitator, hau da, “zerbaitekin edo norbaitekin ehuntzea” (2006:15). Arte Erlazionala, aldiz, harremanetan oinarritutako sorkuntza da; eta ehuntze horren parte-hartzaile, kolektibo eta bitartekaria, beraz.

Horrez gain, testuinguruko artea zein arte erlazionala ‘artibista’ ere izan daitezke, baldin eta lanak edo dinamikak zapalkuntza-harreman guztiak salatzen, kuestionatzeko edo eraldatzeko erabiltzen badira. Ezaugarri artibista ez du objektuak haren euskarri eta teknikekin zehazten, baizik eta ekintza kolektibo eraldatzaileak, sistema soziala, politikoa, ekonomikoa, bai eta juridikoa ere berrasmatzeko prozesuan.


2. Lanabesaren Aurkezpena: BatzArt edo Asanblada KreAktiboa

2.1. Markoa: 'Dia-Tekhnē · Artea Arteko eta Mintzabide' metodologia

'Dia-Tekhnē · Artea Arteko eta Mintzabide' *logos* —hitza—, *tekhne*-arekin —arte— osatzen duen elkarrizketa kolektiborako metodologia bat da. Tailer artistiko edo ikerketarako laborategiaren itxurapean, Dia-Tekhnēk egitura eta baliabideak dakartza, ez, ordea, gaia edo edukiak, edozein giza talde edo komunitateri egokitu ahal izateko eta horiek gaituz, gaitu ere, euren auziak 'kreAktiboki' kudeatzeko gauza izan daitezzen.

'Dia-Tekhnē · Artea Arteko eta Mintzabide' metodologia elkarren segidako fase bitan garatzen ohi da: Plastika Erlazionala eta BatzArt edo Asanblada KreAktiboa.

Plastika Erlazionalaren bitartez taldeak oinarrizko hiru printzipio demokratikoak praktikan jartzen ditu: 1) parte hartzea, "etxea" deritzon esparruan edozein pertsonaren integrazioan datzana; 2) elkarrekiko tolerantzia, "kalea" delako tartean elkarren arteko enpatia eta alteritatea xede dituen; eta 3) gizarte-kontratua edo 'elkarbizitzarako ituna', "plaza" izeneko espazioan pertsona guztien arteko elkarlan eta 'sorkidetz'arekin orekatuan gauzatzen dena.



Iturria: geuk egina.

Plastika Erlazionalak taldea kohesionatzeaz gain, auzi, arazo edo gatazka komunei kolektiboki heltzeko gaitzen du. Dia-Tekhnēren lehen fase horren emaitza taldearen harreman-prozesuaren erregistro plastikoa da: banako identitatetik nortasun kolektibora.

2. Irudia: Plastika Erlazionala: Tolima-Colombia (2013ko iraila)



Iturria: geuk egina.

2.2. Formatua: BatzArt edo Asanblada KreAktiboa


Asanblada KreAktiboa 'Dia-Tekhnē' metodologiaren 2. fasea da. Plastika Erlazionalaren osagarri eta ondorengoa, hiru une nagusitako lan-egitura batean datza: 1) errealitate komun baten gaineko ikuspegi partikularren kartografia eta aniztasunaren kontzientzia hartzea; 2) ikuspegi partikularren sintesia elkarren entzute aktibo zein generatiboaren bidez eta "kontarte" (edo kontakizunen kontakizun) baten lanketan; eta 3) akordio-oinarri horretatik, konponbide edo aukera kolektibo berri edo garatuagoen sorkuntza. Une bakoitzari bere tresneria propioa egokitzen zaio.

Euskal testuinguruan Asanblada KreAktiboari "BatzArt" izena ematen zaio⁵ eta euskal usadio soziopolitikoan oinarritzen da: demokratikoki aukeratutako herritarren batzarretan alde batetik, eta foruetan bestetik. Azken horiek 'foro', agora edo plaza komuna bezala ulertuta eta, batez ere, 'forum internum' edo gizarte subiranoa osatzen duten pertsona bakoitzaren kontzientzia eta autodeterminazio gisa.

Asanblada KreAktiboa, halaber, testuinguruko artean kokatzen da eta, horren barruan, arte erlazionalazko eta artibismoazko formatuak hartzen ditu. Adibide batzuk aipatzen ditugu, besteak beste: Guatemalako *Kaji-Tulam* prozesua lur errearen politiken biktima ziren indigenekin eta haien abokatuekin batera (2009ko maiatza); Gerra-Olanetik Oihan-Oihalera ekintza, Kolonbiaren Independentziaren 200. urteurrena zela eta Florencia Caquetako hiriburua zeharkatzen zuten desfile militarren ondo-ondoan (2010eko uztailaren

⑤ BatzART! Gizarte-Ekimenari eta BatzArt topaketarako, elkarrizketarako eta sorkuntza kolektiborako metodologiari buruzko bibliografia:
<<https://www.gernikagoraturuz.org/wp-content/uploads/2019/03/doc-16-cosmopolitismo-construccion-local-paz.pdf>> pp. 40-51.
<<https://www.gernikagoraturuz.org/wp-content/uploads/2020/05/RG11-completo.pdf>> pp. 211-229.
<<https://iniciativasdecooperacionydesarrollo.files.wordpress.com/2014/06/polifonia-abierta.pdf>> pp. 51-9.9.

20a); Astra 400 pistolaren dekonstrukzioa, Gernikako Astran ospatu zen Artea eta Justizia Sozialari buruzko Nazioarteko 3. Konferentzian (2012ko urria); Santa Cruzeko (Bolivia) CILAJ programarako KontArteak tailerra, nerabe eta gazteen laneratze-gaitasuna helburu zuena (2013ko abuztua); edo Denboraren Kiribila, Trantsiziozko Oroimenak ere deituriko laborategia, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean antolatu zen “Oroimen Izpiak. Artea eta hitzak, ETaren basakeriari aurre” izenburuko erakusketaren baitan (2018ko otsaila eta apirilaren artean).



Iturria: geuk egina.

3. Kasu Praktikoa: Urdaibai-Busturialdeko BatzArt-a

3.1. Urdaibai-Busturialdeko BatzArt-aren Prozesua

BatzArt orok zenbait arlotako gizarte-eragileak biltzen ditu, gai komun baten inguruan talde-sorkuntzako prozesu bati hasiera emateko. Zehazki, Urdaibai-Busturialdeko BatzArt-ean eskualdeko 11 eragilek honako lau ardatz jorratu zituzten —1) ingurumen-jasangarritasuna; 2) lurrerako sarbidea eta alternatiba sozioekonomikoak; 3) generoa eta desberdintasun sozialak; eta 4) kultura-nortasuna eta euskara—, hortik eraldaketa-proposamenak egiteko.⁶

Urdaibai-Busturialdeko BatzArt-a hiru lan-saiotan egin zen, 2021eko martxoa eta apirila bitartean. Eragileok Astran, kultur sorgune bihurtutako arma-fabrika zaharrean biltzen ginen. Eta BatzArt-a edozein txokotan antolatua izateko sortu bazen ere, Astran etxean bezala sentitzen zen. Izan ere, beste hainbat ‘batzar artibista’ egin dira bertan, ia etenik gabe 2006 eta 2016 artean. Astra, berez, ‘asanblada kreaktibo’ bat da.

⁶ [Egilearen oharra]: Lau ardatz horien mapeo eta sistematizazioa, bai eta ardatz horietako bakoitzaren eragileen identifikazioa ere, Xabier Aranari esker egin ahal izan da. Xabierrek topaketan zuzenean parte hartu ez badu ere, bera izan da prozesu honen ‘ko(i)nspiratzaile’ nagusia, eta esker onik beroena luzatu nahi diot.


BatzArt berri honen lehen saioa lurraldearen sekuentzia grafiko bat definitzean zetzan, hiru uneren arabera: 1) Urdaibairen oraingo ikuspegia –Nola deskribatzen dugu? Zer da ikusten dena? Zer ote da ikusten ez dena? Zer uste dugu bistaratu edo azalarazi behar dela?–; 2) desio dugun eskualdearen irudia –Nola irudikatzen dugu? Zer nolako osagaiak ditu? Nolako litzateke paisaia? Nolakoak herriak? Nolakoak biztanleak? Nolakoak pertsonen arteko harreman eta elkarrekintzak?–; 3) tarteko eszenatokiak, errealitatea eta asmoaren arteko tentsioa, aldea edo diferentzia konpontzeko balizko bideak –Nola igarotzen dugu oraingo egoeratik desio dugun egoerara? Zeintzuk ote dira lehen pausuak? Zer nolako ekintzak otutzen zaizkigu?–. Aktore bakoitzak, bere arloan duen jakinduriaz baliatuz, sekuentziaren une bakoitzerako plano ezberdinak jasotzen zituzten argazki multzoak egin zituen, handienetik txikienera: ingurune naturala, baserria, hiria, azpiegiturak, pertsonak eta objektu erlazionalak.

Ondoren, eragile bakoitzak bere irudi multzoak aurkeztu zituen. Eta, behin bistaratuta, 'batzartekideek', taldean, irudiak multzo antzadunetan antolatu zituzten; lehenik, eszenatoki komunak sortuz eta, bigarrenik, horien artean sekuentziak definitzen saiatuz.

Lurraldearen egungo ikuspegiaren inguruan, bi bloke nagusi eratu ziren: 1) eskualdearen garapen jasangarrirako aukera biziak; eta 2) egungo ustiapen-ereduaren alderdi kritikoak. Bi blokeak ondo-ondoan zeudela, agerian suertatu zen bien arteko arrakala. Horrek iradokitzen zuen "zaindu beharreko" eta "hobetu beharreko" errealitateen arteko 'zubi-irudi' batzuen kokapena. Halere, lehen bi blokeak eta horien loturak paisaiaren, hirigintzaren eta azpiegituren elementu 'inpersoneletan' (antropogenizatuak badira ere) ardatzen zirenez, pertsonen eta harremanen laugarren multzo bat definitu zen. Eta, akabuan, bosgarren bloke bat bildu zen "desio dugun lurralderako" aukerekin.

Urdaibai-Busturialdeko BatzArt-aren bigarren saioa gogoeta kolektiboa izan zen, aurreko saioan sortutako multzo grafikoari funtsezko 5 galdera aplikatuz. Galdera horiek, Claes Janssen psikologo suediarren Aldaketaren Lau Gelekin bat datozenak –asea, anabasa, ukazioa eta berrikuntza–,⁷ honela birdefinitu ziren: 1) garenetik eta dugunetik, zer dabil ondo eta eutsi behar diogu?; 2) garenetik eta dugunetik, zer utzi behar dugu atzean?; 3) garenetik eta dugunetik, zer hobe dezakegu?; aitzitik, 4) zer txertatu behar diogu garenari eta dugunari?; eta azkenik, 5) garenetik eta dugunetik, zer eroan genezake beste leku batzuetara? Galdera horien arabera, eragileek irudiak birsailkatu eta argazki berriak gehitu zituzten. Hasierako irudi-blokeak hiru zatitan laburbildu ziren: 1) zaindu beharreko lurraldearen alderdiak; 2) gairitu beharreko alderdiak eta behin betiko baztertu beharrekoak; eta 3) garapen jasangarri eta osasungarri bateranzko aukera egingarriak.

4. Irudia: Busturialdea-Urdaibaiko BatzArt-aren azkeneko 3 argazki-blokeak



Iturria: geuk egina.

⁷ Informazio gehiagorako, ikusi: <https://pharmafield.co.uk/in_depth/four-rooms-of-change-managing-transition/> eta <https://fourroomsofchange.co.uk/background-and-theory/>

Lehen bi saio kontzeptualagoren ondoren, non aktoreek sortutako irudimena analisiaren argudio bilakatu baitzen, BatzArtak erabaki zuen hirugarren saioak, proposamenak formulatzekoak, izaera erritualagoa izan zezala. Astraren lehen solairuko areto zabalean, elkarren segidako bi zirkulu egitea erabaki zen, bata salaketarako eta bestea iragarkirako. Salaketaren zirkulua eukalipto gazteek osatua izango zen, giza neurriko zuhaitzak, furtiboki erauziak eta aretoko sabaitik eskegiak.

Eukaliptoek mendiaren ustiapen gutziatsu eta zabarra sinbolizatzen dute, bai kontrolik gabeko landaketa eta arraseko mozketengatik, bai lurzoruan duen eraginagatik. Izan ere, espezie inbaditzaile, lehorgarri eta pirofito horrek, 4.514 hektareako hedadurarekin, Busturialdeko baso-masaren ia heren bat hartzen du dagoeneko, intsinis pinua azkar ordezkatuta. Astran, eukaliptoen zurtoin moztuak airean zintzilik zeuden, eta, sustraiaren ordez, bakoitzarengandik euroaren ikurra (€) zeukan borobil bana zegoen dilinda, beilegi, berde eta purpura kolorezkoak, billete handien arabera. Eukaliptoen adarretara 'batzartekide' bakoitzak salaketa-inskripzio bana lotu zuen eta, ondoren, artaziak eskuan, zuhaitzei goitik eusten zieten hariak moztu zituen. Eukaliptoen jauskerak lur higatuaren gaineko hostoen, adarren eta azal-xingolen hondakindegia zekarkigun gogora. Ondoren, aktore bakoitzak, lurrez eta substratuz betetako ontzi bat ekarri zuen, eta horretan haritzeko aldaxkak txertatu zituen. Kimuak zituzten lorontziek iragarkiaren bigarren zirkulua osatu zuten. Bukatzeko, eragileek bake positibozko proposamenak partekatu eta haritz gazteen ondoan utzi zituzten.

5. Irudia: Eukaliptoen Zirkulua eta Agetx-Kimuak



Iturria: geuk egina.

Ondorioak

BatzArtean formulatutako *bake positibo*zko proposamen bakoitzak Busturialdea-Urdaibain abian dauden prozesuak berrelikatzen ditu:

- 1) “Lurzorua, ura eta biodibertsitatea zaintzea; paisaiak berreskuratzea; elikagai osasuntsuak ekoiztea; errespetua eta maitasuna lantzea; duintasuna exijitzea... eta horren guztiaren ondorioz, alai bizitzea.” Horretan zenbait erakunde ari dira lanean: Zain Dezagun Urdaibai, Lurgozo, Lurgaia, Lurbizi, Lurkoi, Lur Deia, Jangurie, Bizisare, KGB (Kolore Guztieta Basoak), Lurre Urre, Piperra eta Gatza. Denentzako erronka da eskualdeko uraren kudeaketa arduratsua.
- 2) “Herri partaidetza aktiboa” berrmatuta dago Bermeoko Kontseilu Feministaren eskutik; “herri-kontsultek”, ordea, auzo eta herrietan ekimenak badaude ere, bultzada handia behar dute, batez ere Gernikan.
- 3) “Herriaren ahotsa eta izaera islatzen dituen erreserba naturala” hainbat kolektibo ordezkatzeko dute, esaterako, Urdaibai Kantagunea, Gernika Batzordea, Lobak, Urdaibai Dantza Taldea, eskualdeko musika- eta arte-jarduerak, edo Mugi Paisaia bezalako prozesuak.
- 4) “Adin guztietako pertsonen beharrezan erantzuneko dien Gernikan Kultur-Etxe berria, asteburuetan irekia egongo dena eta sorkuntzarako espazioak edukiko dituen” martxan dago.
- 5) “Ahizpatasuna, Elkartasuna eta Guztiontzako Aukerak”, eskualdeko Hirugarren Sektore Sozial aktiboak zaintzen ditu: Gernika Gogoratuz eta Gernikatik Mundura erakundeek, Sare Feministak, Besaldek (saharar herriaren lagunak), Diapalante Sunu Biir Bermeoko senegaldarren elkarteak, AVIFESek (gaixotasun mentala duten familien eta pertsonen Bizkaiko elkarteak), gaixotasun arraroen aurkako Eutsi Gogor, Danok Batera proiektuak, mendekotasunen aurkako Etorkintza fundazioak, Ideasur GKEak, Euleuk elkarte senegaldarrak edo Hizka Mizka elkarte kulturalak, besteak beste.
- 6) Hala ere, azkeneko proposamena –“beti etxera bueltatzera eramango nauen Urdaibai: jasangarria; tokiko basoduna; kutsadurarik gabea; eta sormenez beteriko herriak bizirik mantentzen dituen”– erronka ireki bat da, aurreko ekintza-ildo guztiak zeharkatuko dituzten sortze-prozesuak beharko dituen.

Laburbilduz, Busturialdea-Urdaibaiko BatzArt-ak balio izan du eskualdeko ingurumen-, gizarte- eta kultura-eragileen kezka agerian jartzeko, haien lan-prozesuekin ‘kreAktiboki’ eta ‘æfektiboki’ lotzeko eta dagoeneko abian dauden ekimenak bizkortzeko. Ostean, Astrako espazio berean, prozesuaren baliabide kontzeptualak –lurraldearen argazkiak, sistematizazio-tresnak– eta ‘erritualak’ –eukalipto moztuen salaketa-zirkulua eta agetx-kimuen iragarpen-zirkulua, bakoitza bere mezuekin– erakusketa batean aurkeztu dira, diziplinarteko hausnarketa helduagoa sustatzeko asmoz. Hausnarketa horrek, ziur aski, BatzArt berri baterako deialdia ekarriko du, eta horrekin batera, ekintza eraldatzaile berriak.

6. Irudia: Busturialdea-Urdaibaiko BatzArtekideak



Iturria: geuk egina.

BatzArt-a, “aurea hartzen duen ikaskuntzaz” gain, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren beste ildo estrategikoen osagarri ere bada, zainketetarako sorkidetzarena edo sororitatezko kontseiluena kasu, botere-dinamikei heltzen dien eta iraultzen dituen entzute aktibozko prozesuen bitartez. Eta, dena bilduta, testuon ikusi dugun legez, ‘bakerako artearen’ eredu hau lanabes baliagarria da ere lurraldea buru-bihotz-eskuz *sentipentsatzeko*.

Erreferentziak

Ardenne, Paul (2006): *Un arte contextual. Creación artística en medio urbano, en situación, de intervención, de participación*, Murtzia, Cendeac (Centro de Documentación y Estudios Avanzados de Arte Contemporáneo).

Carrascosa, Alex (2010): *Dia-Tekhnē. Diálogo a través del Arte*, Bilbo, Bakeaz / Gernika Gogoratuz.

Carrascosa, Alex; Momoitio, Iratxe; Oianguren, Maria (koord.) (2017), *Itsasoratze Artibista. Arterapia eta Artibismoa*, Gernika / Donostia, Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa, Gernika Gogoratuz Fundazioa, DSS2016EU Fundazioa.

Internationale Situationniste (1958-1961) (2001): “Internacional Situacionista: Textos íntegros en castellano de la revista Internationale Situationniste” (1958-1969). 1. Liburukia, *La realización del arte: Textos de IS 1-6 (1958-1961)*, Madril, Literatura Gris.

I. S. (1961-1968) (2004): “Internacional Situacionista: Textos íntegros en castellano de la revista Internationale Situationniste” (1958-1969). 2. Liburukia, *La supresión de la política: Textos de IS 7-10*, Madril, Literatura Gris.

Kaprow, Allan. (2003): *Essays on the blurring of Art and Life*, Berkeley CA: University of California.

Restany, Pierre (2003): *El poder del Arte. Hundertwasser: el Pintor-Rey con sus cinco pieles*, Kolonia, Taschen.

Stachelhaus, Heiner (1990): *Joseph Beuys*, Bartzelona, Parsifal.

Carrascosa, Alex (2014): "BatzART! Asamblea CreActiva de apoyo al Diálogo y a la Democracia Participativa", Esther Canarias y Fernando Altamira (koord.): *Polifonía Abierta. Voces que incorporan a la sociedad civil en la búsqueda de la paz*, Bilbo, Iniciativas de Cooperación y Desarrollo, 51-99 or.

(2020): "Restorative Artifacts/ Artefactos Restaurativos", Gema Varona Martínez (zuzendaria): *Arte en Prisión. Justicia restaurativa a través de proyectos artísticos y narrativos*, Valentzia, Tirant Lo Blanch, 401-443 or.

Carrascosa, Alex (2009): "Memoria de BatzArt, Asamblea CreActiva de apoyo al Diálogo y a la Democracia Participativa", Fernando Cruz y María Oianguren (koord.): *Gernika Gogoratu Lan-Dokumentuak* 16. zenbakia (2009ko abuztua), 40-51 or.

Tisdall, Caroline, ed. (1974). *Art into Society, Society into Art: seven German artists* (29 October – 24 November 1974). London: ICA.

Antón, Ricardo eta Roberto Gómez de la Iglesia (2020): *Kultursistema. Kultura eta sormen ekosistemak mapeatu, aztertu eta interpretatzeko plataforma*, Bilbo, Karraskan, hemen eskuragarri: <<https://kultursistema.com/>> (2021eko urrian kontsultatua).

Carrascosa, Alex (2014): "On The 'Dia-Tekhne · Dialogue Through Art' Methodology" en "*In Factis Pax*" *Online Journal of Peace Education and Social Justice* (Peace Studies and Peace Education at The University of Toledo, Ohio), Volume 8, Number 1, 2014, 62-91 orr., hemen eskuragarri: <<http://www.infactispax.org/volume8dot1/Carrascosa.pdf>> (2021eko urrian kontsultatua).

(2016): "La Construcción del Organismo Social como una Obra de Arte (Repeating Beuys)", *AUSART Revista para la Investigación en Arte* aldizkarian, 4. Liburukia (2016, 2.a), Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco, 23-34 orr., hemen eskuragarri: <<https://ojs.ehu.eus/index.php/ausart/article/view/17237>> (2021eko urrian kontsultatua).

(2020): "Kontzientzia eta agentzia behar dituen gizarte organismo berria", *Hordago-El Salto* aldizkarian, 2020ko ekainak 10, hemen eskuragarri: <<https://www.elsaltodiario.com/filosofia/kontzientzia-eta-agentzia-behar-dituen-gizarte-organismo-berria>> (2021eko urrian kontsultatua).

Internationale Situationniste (1969): *Internationale Situationniste*. Numéro 12, (2021eko urrian kontsultatua) hemen eskuragarri: <http://www.larevuedesressources.org/IMG/pdf/internationale_situationniste_12.pdf>.

Janssen, Claes (1964-75): *Four Rooms of Change*, (2021eko urrian kontsultatua) hemen ikusgarri: <https://pharmafield.co.uk/in_depth/four-rooms-of-change-managing-transition>.